

Ixa ikerketa-taldeak bekak eskaintzen dizkie

HAP-LAP 2020-2021 Masterra egingo duten ikasleei

Argitaratua: 2020ko maiatzaren 14an

Eskaera egiteko azken eguna: 2020ko ekainaren 30a

Ebazpena: 2020ko uztailaren 30a

OHARRA: Masterrean izena emateko azken eguna maiatzaren 22a da. Tramite hau doakoa da eta ez du inor behartzen matrikula burutzerara.

Beka 3.000 eurokoa izango da guztira, eta ez da bateragarria izango helburu bererako emandako beste beka edo finantzazioren batekin. Hautagaiek aurrez izena emanda eta onartuta egon behar dute EHUk eskainitako [Hizkuntzaren Azterketa eta Prozesamendua - Language Analysis and Processing](http://ixa.eus/master/) (<http://ixa.eus/master/>) masterrean. Ikasketak master batez osatu, eta etorkizunean ikerkuntzaren munduan murgiltzeko motibazioa duten ikasleak bilatzen ditugu.

Bete beharrekoak:

- HAP-LAP 2020-2021 Masterreko programan onartua izatea. Izen-ematea doakoa da eta [hemen](#) egin daiteke
- Onartu izanaren baieztapena posta elektronikoz bidaltzea.
- UPV/EHUko Ixa ikerketa-taldeak eskaintzen dituen master-tesien artetik bat aukeratzeko konpromisoa hartzea. Master-tesi horiei buruzko informazio guztia [hemen](#) eguneratuko da.

Izen-ematea eta hautaketa-prozesua:

- Bidali beharreko dokumentazioa: CV eguneratua, emaitza akademikoak eta ikerketakoak jasotzen dituen, hizkuntzen ezagutza egiaztatzeke agiriak, eta harremanetarako informazio pertsonala.
- Hautagaiek dokumentazioa helbide honetara bidali beharko dute: amaia.lorenzo@ehu.eus